

Kaixo,
Datorren asterako, Donostiako Arkitektura Eskolako ikasleok Aste Arkitekturala antolatu dugu martxoaren 11tik 15era, lehenengo aldiz euskaraz eta ingelesez gure Euskal Herriko Unibertsitate honetan. Aste Arkitektural hori arkitektura-ikasle euskaldunon eskubideak errespetatu daitezkeen egingo dugun astebeteko Greba Sorkor baten baitan ulertzen da. Asko eskertuko genizuke informazioa zabaltzerik bazenute. Atxikita bidaltzen dizuegu ekitaldiaren informazio osoa eta programa eta ordutegia azaltzen dituen kartela. Zalantzarik baduzue edozein galderari erantzuteko prest gaude. Milesker!

GREBA SORKORRA: ASTE ARKITEKTURALA 2013 ARCHITECTURAL WEEK
Arkitekturako Ikasle Asanblada / martxoak 11-12-13-14-15

Arkitektura-ikasleok aspertuta, nekatuta eta haserre gaude gure hezkuntzak aspaldian hartu duen indiferentzia kolektibo eta alienazio indibidualeranzko bidearekin, eta gure eskari eta beharrei behin eta berriz entzungor egiten dien administrazioarekin. Arkitekturako Ikasle Asanbladak Greba Sorkorrari buruz otsailaren 26an egindako bozketak ez du zalantzarako tokirik uzten: Donostiako Arkitektura Eskolako ikasleek %97,3ak ondorengo eskarietako bakoitza banan-bana betetzea exijitzen dugu, gure unibertsitatean euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatu daitezkeen eta euskara emantzipatu gara dadin behingoz:

- (1) ADMINISTRAZIOAK, KATEDRATIKO ETA PROIEKTU-EPAIMAHAI EUSKALDUN BIKOIZTUAK EZARTZEA BEREHALA.
- (2) IRAKASLEEK, EUSKARAZKO ETA INGELERAZKO EKIMENAK ANTOLATZEA BEHINGOZ.
- (3) ETA IKASLEOK ERE, AUTO-ETIKA ETA KOHERENTZIAZ JOKATZEA, EUSKARAZ IKASTEA ERABAKI BADUGU.

Eskola partehartzaile eta ireki baten alde.
Eskola etiko eta garaikide baten alde.
Eskola euskaldun eta global baten alde.

ASTE ARKITEKTURALA 2013 ARCHITECTURAL WEEK astebeteko ikasle-greba izango da, Greba Sorkorra. Eskola husteraz goaz, berriro betetzeko. Eskola gelditzera goaz, berrabiarazteko. Hau izango da ikasleok proiektatutako eskola-eredua, eskala errealean. Hemen programa:

- Goizetan, aste osoan zehar, lantegiak garatuko dira, eskolako ikasleoi zuzenduta nagusiki: pausuz pausu, eskala makrotik (XL) eskala mikroraz (S), arkitektura-eskola ikasleek esperientziaren eta benetako beharren arabera berproiektatzera zuzenduko dugu gure diziplina: arkitektura.
- Arratsetan, jardineko bazkari musikatuak eta gero, hitzaldi, proiektzio eta tailerrak izango ditugu. Ondorengoak, besteak beste:

Sophopolis
Zerain: paisaia kulturala
Limesak: paisaia, lurraldea eta eraikitako mugak
Lurralde ez-hazkundera
Arkitektura desagertzen denean...
Fabrikatik paisaia industrialerako bidaia
Espazio osasuntsu eta pertsonalizagarriak
Har-Etxea eta Berreibar proiektuak
Atatxeetan

Manuel Iñiguez eta Alberto Ustarroz (Arkitektoak eta EHuko irakasle katedratikoak)
Jakoba Errekondo (paisaialaria eta Zerain Bizirik Fundazioko kudeatzailea)
Javier Puldain (arkitektoa eta EHuko irakaslea)
Ula Iruretagoiena (arkitektoa eta EHuko irakaslea)
Ibon Salaberria (arkitektoa eta EHuko irakaslea)
Tximini Kolektiboa (arkitektura lan-talde multidiziplinarra)
ArkiOreka (arkitektura estudio integrala)
M-Etxea Kolektiboa (EHuko irakasle eta ikasle osatutako arkitektura-kolektiboa)
Hiria Kolektiboa (arkitekto eta hirigile eta EHuko irakasleak)

Egun bakoitzaren amaieran Musikeneko ikasleek zuzeneko emanaldiak izango dira, eta cocktail partehartzaileentzat..

- Azken egunean, ostiralean, asteen zehar egindako lanak aurkeztu eta arkitektura azoka egingo dira goizez. Ondoren, IKASLE-BAZKARIA izango da eta, astea amaitzeko, KONTZERTUAK eskolako jardinean: AiEne, Zurraia eta DjWün.

FAQ / Helarazi zaizkigun galdera linguistikoei erantzunak:

(1) ZERGATIK EUSKARA ETA INGELERA?

Munduan milaka hizkuntza daude, baina, hizkuntza-ekonomia naturala aintzat hartuta, eskema orokorra bera da toki guztietan: erabiltzen da hizkuntza lokala (gurean, euskara) eta erabiltzen da hizkuntza globala (gaur egun, ingelera). Horregatik, euskaldunok ere, geure artean komunikatzeko, geure dena, lokala, euskara; eta, hainbat arrazoi direla medio, oraindik euskalduntze bidean diren euskalgabeekin eta, orokorrean, globalitatearekin, komunikatzeko, ingelera. Esan bezala, badakigu munduan, eta Euskal Herrian, askoz hizkuntza gehiago hitz egiten direla (frantziarra eta espainiera nagusiki), eta aintzat hartzen ditugu; baina erabateko lehentasuna dute hizkuntza lokalak, euskarak, eta hizkuntza globalak, ingelarak.

(2) EKITALDI OSOA EUSKARAZ ANTOLATU DA. INOR BAZTERTZEN DA?

Bi bide daude jende guztiak parte har dezan: bata, orain arte gertatu dena, bertako hizkuntza-komunitatea baztertzea, oraindik euskaraz ez dakien gutxiengo euskalgabe batekiko errespetu faltaz; bestea, gutxiengo hori euskaraz integratu eta tokiko hizkuntza ez jakiteagatik dauzkan mugak minimizatzeak eskura dauzkagun baliabide guztiak jartzea, gehiengo eta bertako den hizkuntza-komunitate euskaldunaren eskubideak errespetatuz. Arkitekturako Ikasle Asanbladatik argi eta garbi bultzatu nahi dugu bigarren aukeraren aldeko apustua eta horren gizarteratzea, astez asteko biltzarretan frogatu dugun bezala, bikain funtzionatzen baitu.